

IMOZKO UDALAREN ETA IMOTZ OSATZEN DUTEN KONTZEJUEU ARTEKO HITZARMENA

Lehena: Hitzarmenaren xedea

Hitzarmenaren xedea da Imozko Udalaren eta hitzarmenari atxikitzen zaizkion ibarreko kontzejuen artean lankidetzaz ezartzea, kontzejuen ekonomia-sistema hobetzeko eta indartzeko.

Hartara, Udalak eta kontzeju sinatzaileek konpromisoa hartu dute hitzarmenaren bigarren eta hirugarren idatz-zatietan ageri diren beharkizunak betetzeko.

Bigarrena: Imozko Udalaren betebeharrak

2.1- Ekonomikoak:

Imozko Udalak konpromisoa hartu du, hitzarmena sinatu duen Imozko kontzeju bakoitzari diru kopuru batzuk urtero transferitzeko. Diru kopuruak honako idatz-zatietan ezarritako irizpideen aplikaziotik aterako dira.

2.1.1 Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zergari (EIOZ) dagokion diru-transferentzia.

2.1.1.1 Udalak urtero funts bat osatuko du, eta obra guztien Obra Gauzatzeko Aurrekontuaren gaineko % 0,5en portzentajea aplikatuz aterako da diru kopurua, baldin eta obra horien EIOZ zerga hitzarmena sinatu duten kontzejuetan bildu bada, aurrekontuaren aurreko ekitaldian. Aipatu transferentzia-funtsa honela banatuko da:

- ⌚ Funtsaren % 50 banatuko da kasuan kasuko obrak kokatu diren kontzejuen artean; betiere, aurreko paragrafoan aipatutako obrak badira.
- ⌚ Eta beste erdia berdin banatuko da kontzeju sinatzaile guztien artean.

2.1.1.2 Udalak urteko lehen hiruhilekoaren barruan finkatuko du funtsaren diru kopurua, 2.1.11. puntuan adierazitakoarekin bat. Behin zenbatekoa finkatuta, kontzeju bakoitzari transferituko zaio, xede horretarako eman duen kontuaren bidez.

2.1.2 Zirkulazioaren gaineko Zergari dagokion diru-transferentzia

Hitzarmen hau sinatu duten kontzejuen aurreko urtean bildutako kopuruaren % 50 transferituko die Udalak kontzejueri, honako banaketa-formula honi jarraiki:

- ⌚ Zenbatekoaren % 50 banatzeko, kontzeju guztiei kuota finko berdin bat esleituko zaie.
- ⌚ Gainerako erdia banatzeko, berriz, kuota aldakor bat esleituko da, kontzeju bakoitzean kontzeptu horrengatik bildutako diru kopuruaren arabera.

2.1.3 Imozko Udalaren hirigintza-aprobetxamenduei dagokien diru-transferentzia.

Imozko Udalak kontzejueri transferituko die hirigintza aprobetxamenduaren ordeztaren parekoa dirutan ematearen ondorioz lorturiko diru-sarreraren zati bat, betiere arau hauekin bat:

- ⌚ Kontzeju baten jabetzapeko lurretan sorrarazitako hirigintza-aprobetxamenduak bere osoan transferituko dizkio Udalak kontzeju jabeari.
- ⌚ Hirigintza-aprobetxamenduen gainerako % 25, hau da, jabetza pribatuko lurretatik heldu direnak, aprobetxamendua sorrarazten den kontzejueri transferituko zaie.
- ⌚ Aipatu diru-sarrerak urteko lehen hiruhilekoaren baitan transferituko zaizkie kontzejueri, hirigintza aprobetxamenduaren ordeztaren parekoa dirutan

ematearen ondorioz aurreko ekitaldi ekonomikoan lorturiko diru kopuruaren arabera, eta kontzeju bakoitzari egokitzen zaion zenbatekoarekin bat, hots, aurreko idatz-zatiaren irizpideak aplikatuz ateratzen den huraxe.

- ⌚ Nolanahi ere, idatz-zati honetan aipaturiko diru kopuruak bideratuko dira Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legearen 227. artikuluan aurreikusitako xederen batera, dela kontzejuen eskumenekoak izan, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailearen 2ko 6/1990 Foru Legearen 39. artikulua egiten duen atribuzioarekin bat, dela dela udal eskumenekoak izan.

2.1.4 Hitzarmen honen aplikaziotik kanpo dauden jarduketak.

Egoera berezi jakin batzuk daude 2.1.3. puntuaren aplikaziotik kanpo; halakoetan, aldean arteko hitzarmen berezi bat negoziatu beharko litzateke. Xede horretarako, 15 etxebizitzatik gorako urbanizazioak eta industrialdeak jotzen dira egoera berezizat.

2.3 Administrazio-lankidetzarako betebeharrak

Imozko Udalak kontzejuei informazioa emateko konpromisoa hartu du Imozko Udalerrian bai ofizios bai alde batek eskaturik egin nahi diren hirigintza-izaerako ekimen guztiei buruz (hirigintza-planeamendua egin edo aldatzea; urbanizazio-proiektuak; lizentzia eskaerak; hirigintza arloko legezketasuna lehengoratzeko espedienteak; zehapen-espedienteak...),

Horrekin bat, Udalaren Erregistroan aurkezten diren proiektuen berri emanen zaie kontzejuei, noiz eta erregistroan sartzen diren unean bertan; horrela, kasuan kasuko kontzejuak, egoki irizten badiu, 15 eguneko epea izanen du proiektua berrikusteko eta egoki iriztitako oharrak egiteko.

Hirugarrena: Kontzejuen betebeharrak

Kontzejuak, beren aldetik, uztailearen 2ko 6/1990 Foru Legearen 39. artikuluan bildutako eskumenak bere gain hartzen segitzeko konpromisoa hartu dute, udalaren alde egin daitezkeen eskumen-eskuordetzak galarazi gabe: eskuordetzak Legeak dakartzan baldintzek arautuko dituzte. Kontzejuak honako konpromiso hauek hartu dituzte:

- ⌚ Udalarekin lankidetzan aritzeko konpromisoa, Imozko ekonomia eta hirigintzaren aldetik garatzera bideratutako jarduerak guztietan.
- ⌚ Hirigintza-planeamenduaren prestaketan parte hartzeko konpromisoa.
- ⌚ Udalarekin lankidetzan aritzeko konpromisoa, kontzejuaren mugapean egiten diren obren jarraipena egiteko.
- ⌚ Lizentziarik gabe egiten diren edo argi eta garbi legea urratzen duten obren edo jardueren gauzapena salatze konpromisoa.
- ⌚ Hirigintza-aprobetxamendu gisa (2.1.3) transferitzen zaizkien zenbatekoak Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen 227. artikuluan aurreikusitako xedeetara soil-soilik bideratzeko konpromisoa.

Laugarrena: Ur hornidurari eta saneamenduari dagozkien eskumenak Udalaren eskuetan utzi ez dituzten kontzejuak nahi bezalako tarifak ezartzen ahalko dituzte; hartara, hitzarmen honi jarraiki dagozkien diru kopuruak jasotzeko unean, kontuan hartuko da Udalak kopuru horietatik kenduko duela

bilketa-defizitaren zenbateko baliokidea, hau da, aipatu eskumenak Udalean eskuordetu dituzten kontzejuentzako finkaturiko tarifak ez aplikatzearen ondorioz sortutako defizitaren zenbateko baliokidea.

Bosgarrena: Hitzarmen honek 2010eko urtarrilaren 1ean hartuko indarra eta mugarik gabeko indarraldia izanen du. Hala ere, haren diru ondorioek 2009ko aurrekontu-ekitaldian izanen dute indarra.

Edozein alde hitzarmen hau salatzen ahalko du, urte natural bakoitza bukatu baino hiru hilabete lehenago gutxienez.

Seigarrena: Hitzarmenean egiazki sartzeko, kontzejuak hitzarmenari atxikitze borondatea agertu beharko dute 2009ko abenduaren 31 baino lehen.

Zazpigarrena. Hitzarmen honen sinatzaileak lurraldez dagokien Epaitegi eskudunen menpe jarriko dira.

Imotzen, 2009ko abenduaren 31n.